

## JOSE MIGUEL BARANDIARAN FUNDAZIOA

### Sozietatearen izena

Jose Miguel Barandiaran Fundazioa.

### IFK

G20185708

### Izaera

Fundazioa.

### Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

### Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

### Sorrera

Jose Miguel de Barandiaranek eta Eusko Ikaskuntzak sortu zuten Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, 1988ko ekainean. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen [«Jose Miguel de Barandiarán» sustapeneko eta finantziarioko kultura-fundazio pribatua onesten, sailkatzen eta inskribatzen duen 1988ko ekainaren 14ko AGINDUARI](#) jarraiki.

### Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

### EJSN

5811 Liburuen edizioa.

### Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioak honako helburu hauek ditu:

- 1) José Miguel de Barandiaran jaunaren produkzio ugaria sistematikoki biltzea, bai argitaratua bai argitaragabea, haren idazki guztietako jatorrizko testuak katalogatuz eta artxibatuz, baita haren elkarrizketa, konferentzia, hitzaldi edo magnetikoki —filmatuta edo beste edozein bitartekoren bitartez— bildutako beste edozein ahozko ekarpen ere.
- 2) Haren produkzio zientifiko osoaren edizio kritikoa zaintzea eta sustatzea, eta horretarako aditu batzordeak sortzea.
- 3) Haren bizitza, pentsamendua eta zientziari eta kulturari egindako ekarpena aztertzea, eta haren lana estatuan zein nazioartean hedatzea.
- 4) Euskal Herriko Atlas Etnografikoari dagokionez, hark hasitako eta bizitza osoan zehar aurrera eramandako ikerkuntza-lanarekin jarraitzea. Horretarako, proiektu horretan aritzeko Euskal Herriko lurralde guztietan hark sortutako eta prestatutako ETNIKER taldeak indartuko ditu eta baliabideez hornituko ditu.
- 5) Euskal Herriaren alorrean, ikerketarako programa eta beka sustatzea hark landutako diziplinetan, hala nola: Historiaurrea, Arkeologia, Antropologia eta Etnologia.
- 6) Ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta antzeko beste jarduera batzuk ere sustatzea, eta ikerketaren emaitzak eta fundazioak sustatutako azterlanak argitaratzea.
- 7) Fundazioari bere xedea ahalik eta ondoen betetzen laguntzeko beste baliabide batzuk ebatzea.

## Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

### Sozietatearen Funtsa

169.056 €

### Sozietatearen funtsaren osaera

Fundazioaren hasierako kapital- eta ondare-zuzkidura honako hauez osatua dago, fundazio-eskrituran jasotakoaren arabera:

1. Jose Miguel de Barandiaran jaunak bere lan eta argitalpen guztien egile-eskubideak ekarri ditu, indarreko legeari jarraiki, bizirik egon zen bitartean Pilar Barandiaran iloba izan zelarik haien gozamen-dun.
2. Eusko Ikaskuntzaren ekarpena: batetik, Eusko Folklorearen Urtekariaren goiburua eta funts editoriala; eta, bestetik, Jose Miguel de Barandiaran urteko beka, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Nafarroako Foru Gobernuaren babesarekin Eusko Ikaskuntzak sustatu eta kudeatzen duena.

### Patronatua

Patronatuaren esku uzten dira fundazioaren ordezkaritza, gobernu eta administrazio osoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Josemari Vélez de Mendizabal Azkarraga jauna	Presidente. Eusko Ikaskuntza.
Beatriz Akizu Aizpiri andrea	Idazkaria. Eusko Ikaskuntza.
Jesús Altuna Etxabe jauna	Eusko Ikaskuntza.
Amaia Rodríguez Hernandorena andrea	Eusko Ikaskuntza.
Blanca Urgell Lázaro andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jauna	Nafarroako Gobernua.
Iciar Lamarain Cenitagoya andrea	Arabako Foru Aldundia.
Miren Josune Ariztondo Akarregi andrea	Bizkaiko Foru Aldundia.
Ikerne Badiola Garciandia andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Igor Aierbe Guridi jauna	Ataungo Udala.

Fundazioari egindako ekarpen zientifiko edo ekonomikoengatik edota José Miguel de Barandiaran jaunaren lanarekiko identifikazio-mailarengatik Patronatuak izendatutako patrono partikularrak:

Asier Bidart Meabe jauna  
Javier Fernández Bordegarai jauna  
Sebastián Gartzia Trujillo jauna  
Susana Irigaray Soto andrea

### 2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko ekitaldiko urteko](#)

### 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitudo nagusiak

Aktiboa guztira	245.186 €
Ondare garbia	179.052 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	3.696 €
Batez besteko langile-kopurua	2

### Sozietatearen helbidea eta webgunea

Sara Etxea - Murkondo Auzoa, 4 20211 - Ataun (Gipuzkoa)

[www.barandiaranfundazioa.com](http://www.barandiaranfundazioa.com)